Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

OSASUN SAILA

1429

536/2009 EBAZPENA, otsailaren 18koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Ebazpen honen bidez izendatzen da Anatomia Patologikoko Teknikari Espezialista kategorian lotura estatutarioa lortzeko pertsonalaren hautatze probetarako kalifikazio epaimahaia. Aipatutako kategoria Teknikari Espezialista Sanitarioen lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetzako-Euskal Osasun Zerbitzuko erakundeetakoak izango dira.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez onartu ziren Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze probak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 4269/2008 Ebazpenaren, azaroaren 28koaren, bidez egin zen Anatomia Patologikoko Teknikari Espezialista kategorian lotura estatutarioa lortzeko pertsonala aukeratzeko hautaketa proben deialdia. Aipatu kategoria Teknikari Espezialista Sanitarioen lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetzako-Euskal Osasun Zerbitzuko erakundeetakoak izango dira. Aipatutako Ebazpena 2008ko abenduaren 3ko EHAAn, 232. zenbakikoan, argitaratu zen.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpeneko 19. oinarrian aurrez ikusitakoa betez, Osakidetzako zuzendari nagusiak izendatuko du hautaketa proba horiek kalifikatu behar dituen epaimahaia.

Azaldutakoaren arabera eta indarrean dagoen legerian pertsonalaren arloan esleitutako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hautaketa proben kalifikazio epaimahaia izendatzea, Ebazpen honekin batera doan I. eranskinaren bitartez.

Bigarrena.– Ebazpen honi dagozkion ondorioak ematea data honetatik hasita.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea agintzea.

Laugarrena.– Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpeneko 22. oinarrian zehaztutakoaren arabera, Ebazpen honen aurkako gora jotzeko errekurtsoa jarri

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

1429

RESOLUCIÓN 536/2009, de 18 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se nombra al tribunal calificador de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Técnico especialista Anatomía Patológica del Grupo Profesional de Técnicos Especialistas Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 4235/2008, de 28 de noviembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 4269/2008, de 28 de noviembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprueban las bases específicas para el acceso a la condición de personal estatutario fijo en la categoría de Técnico especialista Anatomía Patológica del Grupo Profesional de Técnicos Especialistas Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV n.º 232, de 3 de diciembre de 2008.

De conformidad con lo previsto en la base 19 de la Resolución por la que se aprobaron las bases generales, la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud nombrará al tribunal que haya de calificar las pruebas selectivas.

Por lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas en la legislación vigente,

RESUELVO:

Primero.– Nombrar al tribunal calificador del proceso selectivo de la categoría antes citada, mediante anexo I que se acompaña a la presente Resolución.

Segundo.– Dotar de efectos a la presente Resolución desde la fecha de la misma.

Tercero.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el BOPV.

Cuarto.– Al amparo de lo establecido en la base 22 de la Resolución por la que se aprobaron las bases generales, contra la presente Resolución podrá ser interpues-

ahalko da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Batzordearen aurrean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 18a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

to recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de febrero de 2009.

La Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

ANATOMIA PATOLOGIKOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTEN KATEGORIAREN KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA
TRIBUNAL CALIFICADOR DE LA CATEGORÍA DE TECNICO ANATOMIA PATOLÓGICA

Presidentea/*Presidente*:
– Titularra/*Titular*: Martínez Fernández, Olvido.
– Ordezkoa/*Suplente*: Bilbao Markaida, María Begoña.

Lehenengo mahaikidea / *Vocal primero:*
– Titularra/*Titular*: Eizaguirre Zarza, Beatriz.
– Ordezkoa/*Suplente*: De Miguel Herrán, Eduardo.

Bigarren mahaikidea / *Vocal segundo:*
– Titularra/*Titular*: Esteve Sendra, Alicia.
– Ordezkoa/*Suplente*: Capellan Guemes, Joaquina.

Hirugarren mahaikidea / *Vocal tercero:*
– Titularra/*Titular*: Hernández Pérez, M.ª Ángeles.
– Ordezkoa/*Suplente*: Del Campo Clemente, Consuelo.

Laugarren mahaikidea / *Vocal cuarto:*
– Titularra/*Titular:* Díez Beldarrain, Jon Gregori.
– Ordezkoa/*Suplente:* Lozares Martínez, M. Jesús.

Bosgarren mahaikidea / *Vocal quinto:*
– Titularra/*Titular*: Viadero Seña, Felipe.
– Ordezkoa/*Suplente*: Fiaño Fraga, María Ángeles.

Idazkaria/*Secretario:*
– Titularra/*Titular*: Labayru, Juan.
– Ordezkoa/*Suplente*: Elorrieta Gómez, Begoña.